

Aiherra

Antzuolako herriko bozen ondotik, Inma Beristain andere auzapez berria - Azken 25 urteetako ohidurari jarraituz, berez ere auzapez berri batekin izanen ditugu Antzuolarrak. Betidanik, 4 urte guziz iragaiten baitira han herriko bozak, aldi guziz orain arte auzapez jaun eta andere berriak izendatu dituzte herriko auzapez gisa, eta orain ere: hau andere bat dugu, Aiherran biziki ontsa ezagutzen duguna,



« Antzuolako herriko hautetsi berriak argazkitan »

Inma Beristain Bildu zerrendaren burua. Pedro Iturbe auzapez gaztearen segida hartzen du. Hünen zerrendak herritarren %61en bozak lortu ditu, eta 11 hautetsietarik 7 zerrenda huntuakoak dira, 3 PNBkoak eta bat sozialista.

Lehen komunione eta komu-

nione handi - Salbatorez egin dute Aiherra, Izurtitze, Donamartiri eta Donoztiriko haurrek komunione tipia, Aiherrako elizan. Ekainaren 12an, Mendekostez, komunione handiaren aldi, toki berean, 10:30tan izanen dugu. Bezperan, Izurtitzen arratseko 8tan meza.

Berri laburrak

- Exhez etxe herriko gazteek pestetako eskea egiten dute, eta denbora berean aurtengo pesten programa banatzen. Bi asteondarrez iraganen zauzkigu aurtengo herriko pestak, ekainaren 18an kontzertu handi batekin hasiz korsikar eta euskal kantariekin, eta ondoko asteondarrea segituz. Dezagun erran, komertant eta ofiziale andana batek ekarri dietela sustengua. Xehetasunak, helduden astetik goiti emanen ditugu. Anartean, gazte haueri ongi etorri egitea galdatua zauku.

- Joan den ostiralean, 3. adinekoek elgarretaratze goxo batetan parte hartu dute Atiatea ostatuan. Aihertar eta Izurtzarren artean iragan da hau, eta orotara 47 lagun bildu dira, alegarki, bazkari ondarean mus partida batzu eginez. Luzaz segi dezatela giro berean.

Aiherra

Herria du 9 jun 2011

Aiherrako Pestak, 2 asteondarrez ekainaren 18an hasien korsikar eta euskal kantariekin

Herriko pestak hurbiltzen ari zauzkigu. Aurtengo berezitasuna da 2 asteondarrez iraganen direla, ekainaren 18an kantaldi-kontzertu batekin hasiz. Hau bereziki hizemaiten daukute taulagain berean euskal eta korsikar kantari eta musikariak bilduak izanen baitira: ZORTZIBURU, I'ARCUSGI eta MOSKORRI.

Hots, 10 urte du aurtengo Aiherrako pestak herri erdiko plazan antolatzen dituzela, lehen Apairiko plazan egiten zirelarik, eta gazteek markatu nahi dute gertakari izaita nahi luketen gaudi batekin pestak hasiz, aste bat lehenago, ekainaren 18an, herriko plaza ederrean.

ZORTZIBURU taldea, izenak dion bezala Ziburutik heldu zaku, 8 neska kantari osatua da, denak 20 eta 24 urte artekoak. Denak Tximi-Txama taldeko ohiak dira, kantu xapelketan usatuak, sari asko eramán dituen taldekoak. Kanta malle dutelarik, Tximi-Txamako abentura segitu nahi-an, kantu talde berri hau sortu dute: 8 neska gazte, 8 boz, gitarrista batez, lagunduak. Plazer hauzindirini agertuzo dira I'ARCUSGIrekin beñan.

MOSKORRI aldiz, Euskal Herri barnealdekoak dira gehienak, Garazi aldekoak. Hauen kantaldiz alai baten mentura dugu, gaudiaren behar bezala bururatzeko gisan.

Hitzordua, ekainaren 18an, arratseko 8tan, Aiherrako plazan, oihalezko etxe handiaren azpian. Sartzea 12 euro. **ONGI ETORRI GUZIERI!**



Bastako I'ARCUSGI korsikar taldea

Finalizat, bozak eman behar

Herriko pestetako ostiralekin, ekainaren 24an, pala-antxa lehiaketaren finalak arratsaldeko 8ak

ZORTZIBURU, I'ARCUSGI eta MOSKORRI Lehen aldia da I'ARCUSGI korsikar taldea Aiherrara heldu dela. Bastia aldean sortua da talde hau, 1984an, eta hasitapenetik hizkuntza eta kulturaren alde kantatzen du. Orotara 14 dira taulagainean, 9 kantari eta 4 musikari. Orotara, 17 dika ateraki dituzte, boz xoragarri eta musika eder batez lagundurik, ez dira hutsegin beharko. Asteondar hontan, Aiherrako gaudiand batzük ez dira agertuko, eta arras motibaturik heldu dira, hemen gaindi baltituzte lagun asko, batez ere hauekari bat gure herrian.

1/2tan eginen baitira, ondok izanen den afariko izenak aitzinetik eman behar dira, ekainaren 10eko, 06.77.54.64.16ra dituzte. Orain beretik zuen tokia erresaliba zazu, ez zaituzte dolotuko!

14 gaztek komunione tipia Salbatore egunez, Aiherra, Izurtitze, Donamartiri eta Donoztiriko 14 gaztek egin dute lehen komunione, haurrei eta familiako ez inguraturik. Mendekostez egunez, 4 herrietako helduagoek egiten dute toki berean komunione handia edo fedearen aitormena. Ondoko argazkian, komuniant tipien taldea ikus ditake.



Aiherra, Izurtitze, Donamartiri eta Donoztiriko haurrak, apez eta kateko lagundurik

Aiherra

Eiheren eguna - Igandean idekiko ditu publikoari atsek Uhuaguneko eiharak, Eiheren eguna kari. Bisita 14.00etatik goiti.

Herriko pestak korsikar eta euskal kantariekin hasten, larunbatean ekainaren 18an Aurtengo pestak hizemaitekin betan gertatzen baitira, pesta komiteko gazteek, aste bat lehenago nahi izan dute gaudi berezi bat antolatu, taulagain berean korsikar eta euskal kantariak elgarretaraz. Gaudi hau, larunbat hontan herriko plazan, oihalezko etxe handi baten azpian iraganen da, 9tan hasiz.

Lehen partean, **ZORTZIBURU** taldeko 8 neska kantariak, gitarrak lagundurik, berek landu kantu batzauzkigute eskainiko. Dakigularik 8 kantari hauek denak Tximi-Txama taldeko ohi edo helduak ditugula, kalitateko emandak baten mentura behar ginuke. Kantuaren amodioz, adinarekin gatik eta gaztegoeri lekua utzi beharean, talde ohi utzi dute eta talde berri baten sortzea deliberratu. Bigarren partean, Bastia herriko zuzenean etortzen den I'ARCUSGI taldea dugu gaudi huntuako gomila nagusia. 1984an sortu zen talde hurek, arrakasta gaitza biltzen du bazter guzietan, eta lehen aldikotz Aiherrara etortzen da. 9 gizon kantari eta 4 musikari dute talde hau osatzen, eta taulagainea biltzen. Beren taldeua eta boz xoragarrien bidez 2 oreneko pidaia baten egitea hizemaiten daukute. Beren burua "poiliko-kultural" talde bezala presentatzen duten kantari hauek, kantaldi guzietan sustengua ekartzen dute leheruak diren herrialde desberdinetako beste kulturei. Euskal Herria etortzen direnean, gertatzen zalote ere euskaraz kantatzea. Bestalde, jakinez Euskal Herria egiten duten pidaia hontan kantaldi bakar bat daukute eskainiko, Aiherrako kantaldi hau ez da hutsegin beharko.

Gauaren ongi bururatzeko gisan, Garazi aldekoak diren **MOSKORRI** taldekoak dute kontzertu-dantaldia segurtatuko. Dakigunaz, arras motibaturik heldu omen dira talde eguzun huntuako kantari eta musikariak. Hitzordua, larunbatean ekainaren 18an, arratseko 8tan, Aiherrako plazako oihalezko etxe

handiaren azpian, Sartzea 10 euro. **ONGI ETORRI GUZIERI!**

Ekainaren 24-25-26 eta 27an, pestek segitzen Hazparneko pestekin betan gertaturik ere, egitarau aberats bat proposatzen daukute pesta komiteko gazteek, denetarik eta denentzat ikusgarriak eskaini nahian. Funtsan horra aitzin pasta bat.

Ekainaren 24a ostirala : 6ak 1/2tan pala-antxa lehiaketaren finalak trinketeen. Ondotik jateko eta edateko Denen Etxean.

Ekainaren 25a larunbata : 8etan zikiroa plazan **KANTUZ** taldeak alaiturik. Ondotik, dantaldia **ADARTZA** taldearekin.

Ekainaren 26a igandea : 10ak 1/2tan meza nagusia. Ondotik zintzur bustitzea Herriko etxeak eskainirik. 4etan Euskal Herriko pilota Ligaren Txapelketaren finalerdiak plazan (2.mala). 7etan Country ikusgarria **LES CHEYENNES** taldearekin. Betan Mubikoak **HERLAUZ BAND** barangarekin. Arratsalde guzian **HAUR JOKOAK** plazan.

Ekainaren 27a astelehena : 10etan birak Auzotean. 7etan ogiartekoak eta mubikoak **TRIKERO** taldeak alaiturik. 8ak 1/2tan **HORIEK HOLA?** antzerkia **BATTITA 4 TITTA** taldeak emanik. Bukatzeko, azken fandangoa **KIKI BORDATXOREKIN**.

Bestalde, aingira jatea herriko ostiatuetan, pesten denboran



Aiherra

Herria du 23 jun 11

Larunbateko kantaldi-dantaldi oroitigarria - Pesta komiteko gazteek ederi hasi dituzte pestak, korsikano eta euskal kantariak gaudi berea gomiatuz. Nahiz eta denek mehaximendukak badituzten, **ZORTZIBURU**-ko neska kantariaren ondok, I'ARCUSGI talde oso osoa Bastia-tik etorririk, 2 oren eta 1/4 irau duen kantaldi



I'ARCUSGI taldeko kantari batzuz

xoragarri bat eskaini daukute. 8 boz eder, bakarko ala taldean 5 musikari profesionalz lagundurik, hots ezin ahanztzikoa geldituko zaku iragan larunbatean ikusi duguna. Jendea gozik jirik, kantaldia bera arratseko 8ak 1/2tan hasi da, eta bekan ikusten dena, 800 ikusle bildu direla, adin guzietakoak kantu ederen preziazteko, denak xutitu direlarik koritsikaren azken kantuarren ondok. Ondotikako dantaldian ere, **MOSKORRI** taldeak gazte aintz bildurik, manera ezin hobean bazterrak inarrosi ditu. Goremanak artista eta antolatzailerak!

Ibiakotzean hoin ederki hasirik, herriko pestek 4 egunez segitzen, ortziraletik astelehena arte! Joan den ibiakotzeko kantaldi-dantaldi soragarriak landa, horra orain Aiherrako pestak lau egunez segitzen dutela, ortziraletik astiehen arratsa edo astearte goiza arte. Hazparnekoekin betan gertaturik ere aurtin, indar berezi bat egin dute gazteek, egitarau aberats baten eskaintzeko: kantu, Country musika, antzerki sorkuntza, pilota palantxaz ala esku huska, biria, dantaldi, afari, mubiko, hauren ikusgarri, hots denetarik izanen da. Herriko pestetako animazioa guziaz, Aiherrako plazan iraganen dira, ostiatuen gain delarik aingira apairuen proposatzea

herriko pesta denbora guzian. Beste salbuespen bat, astelehen goizeko biria zoingehagokoa, Auzotea ostiatuen dela iraganen, aurtin. Beste berezitasunak, gande arratsaldeko Country ikusgarria pilota partidaren ondok, eta astiehean arratseko **HORIEK HOLA?** antzerkia **BATTITA 4 TITTA** taldeak emanik. Horiek denak herriko plazan oihalezko aterre handiaren azpian dira iraganen!!!

Horra beraz xeheki pesten egitaraua.

Ekainaren 24a Ostirala : 6ak 1/2tan Pala-Antxa lehiaketaren finalak trinketeen. Ondotik jateko eta edateko Denen Etxean.

Ekainaren 25a Larunbata : 8etan : Zikiroa plazan **KANTUZ** taldeak alaiturik. Ondotik dantaldia **ADARTZA** taldearekin.

Ekainaren 26a igandea : 10ak 1/2tan meza nagusia. Ondotik zintzur bustitzea Herriko etxeak eskainirik. 4etan **Euskal Herriko pilota Ligaren Txapelketaren finalerdiak** plazan (2.mala). 7etan Country ikusgarria **LES CHEYENNES** taldearekin. Betan Mubikoak **HERLAUZ BAND** barangarekin. Arratsalde guzian **HAUR JOKOAK** plazan.

Ekainaren 27a Astelehena : 10etan birak Auzotean. 7etan ogiartekoak eta mubikoak **TRIKERO** taldeak alaiturik. 8ak 1/2tan **HORIEK HOLA?** antzerkia **BATTITA 4 TITTA** taldeak emanik. Bukatzeko, azken fandangoa **KIKI BORDATXOREKIN**.

Bestalde, aingira jatea herriko ostiatuetan, pesten denboran

ikusten duzen bezala ez dugu enoatzeorik izanen, egitarau bete bete bat prestatu baitaude gure gazteek. Ongi etori denari!

"Antzuola-Aiherra, mugak zubi" liburua, igandean salgai - Herriko ebetrik jakin arazten daukute, berrikidin aterain den liburua, igandeko aperitif denboran, erosten ahaliko dela, 5 eurotan. Antzuola eta Aiherraren binakartzeko historia kontatzen du, 18 elkartzetako eta 170 argazkiren bidez. Euskaraz idatzia da, frantsesezko itzulpenekin. Hainbat argazki eta zuzapen baitira hor bilduak, azken 25 urte hauetakoak, ez dudan egon hunen erosteko!